

IL ULERMEN PROBA • *Ehun metro*

Izen-deiturak ..... Taldea .....

> Markatu (X) erantzunak (25) test laukian: E F Utzi bat hutsik.

> Gaizki erantzundakoek ez dute negatiborik\* (\*Zutabe bat osorik markatu ezean)

Zuzen		
Negatib.		
GUZT.		/ 25
Kalifikaz.		/ 10

1. Eleberriko kapituluak protagonistaren ume garaiko pasarteekin hasten dira.
2. Galdekatzen ari ziren gazteak zigarro bat eskatu zien poliziei.
3. *Ehun metro* eleberrian azaltzen den gertakaria goizeko 9:30ak aldera hasi zen.
4. Iheslearen pentsamenduak 2. pertsonan azaltzen dira eleberrian.
5. Poliziek galdekatu zuten gaztea Kontxa tabernako terrazan zegoen eserita.
6. Iheslariak eta tabernako terrazan eserita zegoen gazteak ez zuten elkar ezagutzen.
7. Protagonistak, korrika hasi zenean, bazekien ez zela salbatuko; ez zuela lortuko ihes egitea.
8. Protagonista, ume zenean, lagun taldearekin joaten zen Kontxako ranpetara olatuekin jolastera.
9. Poliziek gelditzeko oihuak egin zizkioten eleberriko protagonistari; bestela, hilko zutela mehatxu egin zioten.
10. Kontatzen den gertaera 70eko hamarkadan gertatu zela ondoriozta daiteke.
11. Eleberriko protagonistak bazuen eskolako adiskide bat Jose Zuazalagoitia deitzen zena.
12. Ihesaldiaren kontakizunarekin batera, turistei ematen zaizkien azalpenak ere tartekatzen dira eleberrian.
13. Iheslaria esku hutsik, arma gabe zihoan korrika.
14. Protagonista, ihesaldian, gogoratu zen Micheleren giltza bat zeramala poltsikoan.
15. Protagonistak behin bera eta Michele ogia erostera taberna batera sartu zirela gogoratzen du, eta tabernan kartatan ari zirenen txutxumutxuak.
16. Michele frantsesa zen, baina Chilen ikasitako gaztelania apur bat bazekien; euskaraz ez.
17. Michelek protagonistari ez erretzeko eskatu zion biak oheratu zirenean.
18. Protagonistak ehun metroak ia eginak zituenean jaso zuen lehen tiroa.
19. Protagonistak fraide ikastetxe batean ikasi zuen, giro abertzalean.
20. Bigarren tiroa zangoan hartu zuela eta zer sentitu zuen zehazten du narratzaileak.
21. Tabernako terrazako gazteak Michele izeneko neska batekin geratu zela esan zien poliziei.
22. Protagonista oroitzen da taldeko kide bat, Manuel izenekoa, ekintza batean oso larri zaurituta gertatu zela.
23. Iheslariak poliziei tiro egiteko ahalegina egin zuen.
24. Ihesaldiaren azken partea segundoka azaltzen du protagonistak.
25. Protagonistak hiru tiro jaso arren, lekukoari mezu labur bat ematea lortu zuen.
26. Ihesaldiaren kontaketa amaituta, protagonistak bere heriotzaren ondorengo minutuak ere kontatzen ditu, ia ordubete gehiago.

	E	F
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
11		
12		
13		
14		
15		
16		
17		
18		
19		
20		
21		
22		
23		
24		
25		
26		